

Emakumeak ondarearen transmisioan. Hari luzea.

Maribi Unamuno Garate

Euskal Herriko Unibertsitatea
victoria.unamuno@ehu.eus

Abstract

In this article taken from the presentation held at the Conference on Heritage, *Ondarea, Emakumeen emaria* in October 2018 in Aulesti, I analyze the character, professions and occupations and, in general, the *modus vivendi* of the women of Aulesti during the nineteenth and twentieth centuries. For this analysis, the information of several activities showing not only their presence, but also their essentiality and influence in society has been taken in account.

Laburpena

2018ko urrian Aulestiko Ondarea, Emakumeen emaria jardunaldietan aurkeztutako hitzalditik eratorri den artikulu honetan XIX. eta XX. mendeetako emakume aulestiarren izaera, lanbideak, zereginak eta, oro har, bizimodua aztertzen dut, emakumeak gizartean izan duen presentzia, ezinbestekotasuna eta eragina azaleratzen duten hainbat jarduerari buruzko informazioan oinarrituta.

Keywords: census, heritage, major, profession, trader, weaver, miller, beggar, thief, robber, spinner, seamstress, confectioner, fringe, wizard.

Gako hitzak: Errolda, ondare, maiorazgo, lanbide, dendari, ehule, errotari, eskeko, elbarri, harigile, irule, jostun, kaltzetera, konfitero, marragera, morroi.

1. Sarrera

Euskal Herrian zein hemendik kanpo purian dabil ondare-kontzeptua eta kontzeptu zabala da. Iraganean abiatu eta orainera heldu den ondasunari deritzo ondare. Mota bat baino gehiagotakoa izan daiteke, halan, ondare historikoa, ondare naturala, nazio-ondarea, gizateriaren ondarea, pertsonaren ondarea, eta, kasu honetan, kultura-ondarea.

Lan honetan azken honi lotuko gatzazkio. Kultura-ondarea materiala edo ukigarria zein inmateriala edo ez ukigarria izan daiteke. Materiala errezago identifikatzen da, hau da, zubiak, etxeak, eraikuntzak, baselizak, etab. berehala ezagutzen dira. Inmateriala, aldiz, abstraktuago da, ez da ukigarria eta izan daiteke gaitzago identifikatzeko, hauetarikoak dira hizkuntza, ipuinak, esakerak, ohiturak, dantzak, jazkera, etab.

Arbasoengandik jaso den kultura-ondareak identitadedun taldeko kide eta, ondorioz, gizarteko kide sentiarazten ditu partaideak eta identitate eta jarraikortasun sentimentuak bizten ditu giza talde jakin horretako kideengan, alegia, taldea kohesionatzen du.

Kultura-ondareak norbanakoaren eta gizartearen balioak, etika, adierazpen sinbolikoak eta estetikoak ere transmititzen ditu, edo bestela esanda, gizakion beharrianak asetzeko jarduerak, besteak beste, osasunarekin, alde espiritualarekin eta alde ludikoarekin zerkusi dutenak transmititzen ditu..

Belaunaldiz belaunaldi dator; giza taldeko kideek aurrekoengandik jaso eta birsortzen dute egoeraren, naturaren edo historiaren arabera eta, honekin batera, iragana eta geroa lotzen ditu, orainaz baliatuta. Laburtuz, esan daiteke, giza taldeko kideek kultura-ondarea jaso ondoren, erabiliz eta haren onura baliatuz, birsortu egiten dutela eta, azkenik, ondorengoentzat uzten dutela. Hori horrela, kultura-ondare iraganetik datorkigunari baderitzogu ere, berorren gaurko agerpenak ere kultura-ondare dira.

Onar bekit hona arteko ondareari eta kultura-ondareari buruzko aipamen hau, besterik baino gehiago, gaurko gaia kokatzeko aurrekari moduan.

Esate baterako, Teri Ibarrola aulestiarrek 1964 aldean grabatu zituen zazpi ipuin disko bikoitzean. Ahotsez jaso dugun ipuin sorta hori gure herriaren kultura-ondarearen zati da eta, horrekin batera, Euskal Herriaren, Europaren eta gizateriaren kultura-ondarearena. Ipuin horiek lehengo bizimodu, sineskera, portaera eta pentsaeren berri dakarzkue, iraganetik orainera heldu zaizkigu eta geure dira. Nondik gatozen jakiteko aukera ematen digute, iraganak kontu ugari esaten baitio entzuteko astia hartzen duenari.

Ipuinon hariari tiraka, Aulestiko Kultura Elkartek Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Aulestiko Ondare Jardunaldiok antolatu ditu eta kultura-ondarearen transmisioan emakumeek izan duten rola hitz egitea proposatu zidatenez, horretaraxe nator.

Herri-jakituria kultura-ondarearen zati inmaterialaren adierazpenetariko bat dela kontuan

izanda, azken ia berrehun urtean jakituria hori guregana heltzeko bidea egin duten emakumeei dagokien aintzatespena ematea da artikulu honen xedeetariko bat. Era berean, gaurko herritarrok ezagutzen dugun kultura-ondare hori badela onartuta, emakumeak eurak bizi izan diren garaian eta gizartean izan duten presentzia eta funtzioa eta euren transmisore papera errekonozituko ditut jarduera honekin, bestela esanda, emakumeak ondarearen transmisioan izan duen presentzia errekonozitzen ahaleginduko naiz.

Honezkero argi geratu da, emakumeei buruz berba egiten natortzuela. Gizartean izan duten presentzia, familiarian izan duten rola, euren eskuetatik atara dituzten obrak, euren ahotsetatik atara dituzten kontuak, kantak, ipuinak eta kontakizunak aipatuko ditut.

Euren bizitzatik sortu gaituzten emakumeak nortzuk ziren eta zer egiten zuten aztertzen ahaleginduko naiz, eta, sakonean, euren ahotsak entzuten eta zeuei entzun eragiten.

Zalantzan ibili naz, izenak esan-ez esan, zeren bat aipatzeak ekarri dezake beste bat ahaztea, halan da be, nahiago izan dot izen eta guzti aipatzea, aurretiaz adierazita, erraz gerta daitekeela izan ziren guztiak, oharkabea, ez aipatzea, baina, era berean, jakinda, hemen aipatzen ditudan guztiak izan zirela.

Orduan bada, emakumeak ondarearen transmisioaren sustatzailetzat hartuta, XIX. mendeko datuekin batera, XX. mendean ezagutu dugun Aulestiko hainbat emakumeren aipamena egingo dut. Merkataritzan, irakaskuntzan, politikan eta bestelako sailetan jardun duten emakumeak aipatuko ditut, horiekin batera, ezelako jardunbide ofizialik ez eta inon errekonoziturik izan ez arren, baserrian, etxean eta kalean, inoren zaintzan, osasun zereginetan eta bizitzaren beste hainbat esparrutan ibili diren emakumeek egindakoa ez ahazten ahaleginduko naiz.

2. XIX. Mendea

Denboraren pertzepzioa adinarekin aldatu egiten zaigu. Hamar urte ditugunean, 40 urtekoari zaharra deritzogu, 40 ditugunean 70ekoari deritzogun moduan. Adinean aurrera egin ahala, tramoak laburtzen ditugu eta gazte-gaztetan 60 urte edo 100 urteko aldia historia aurreko garaia iruditzen zaigun moduan, nagusiagotan ulertzen dogu ehun urte atzera jota, geure aitita-amumen garaira edo apurtxu bat hurrunago baino ez gareala heltzen, orduan bada, hemen XIX. mendearen hasierako kontuak dakardaz, eta ikusi dezakegu hareek XX. mendeko bizimoduagaz duten loturea.

2.1. 1825eko Polizi errolda

1825ean poliziak Bizkaiko errolda osoa egin zuen herriz herri, etxez etxe; Polizi errolda deitzen zaion dokumentua oso aintzakotzat daukate historialariak, batez ere, zehaztasunagatik.

Errolda hau aurrean dugula, beronen informazioa irakurrita, jakin genezake Aulestik 1.140 lagun zituela urte hartan; 337 gizezkoen eta 384 emakumezkoen lanbideak daude identifikatuta. Etxe bakoitzean zenbat lagun bizi zen, lagun bakoitzak zein lanbide zuen, zein adin, noiztik bizi zen etxe horretan, sinatzen zekien eta antzerako datu zehatzak jasoten dituen errolda benetan interesgarria.

Lanbideari dagokionez, jasoten ditu emakumeen lanbideak ere, emakumeak eta gizezkoak hartu zituen aintzat. Badira beste errolda batzuk non gizezkoen lanbideak baino ez diren aipatzen eta XIX. mendean ez eze, XX. nean ere praktika hori bada; emakumeen lanbidetzat *las propias de su sexo*, *No tiene* eta *Sus labores* idatzita daude dokumentuetan. Modu eraginkorra hau emakumearen zereginak baztertzeko, emakumea ignoratzeko eta gizezkoaren mendeko izaki bihurtzeko. Ostera, gorago esan dugun moduan, 1825eko Polizi erroldan emakumeen lanbideak jasota daude.

Ez dago jasota emakumeak etxea eta etxeokoak zaintzen egiten zuten lana. 1825a zen, horrelaxe baino ezin izan. Hala ere, ageri diren datuak orain dala ia 200 urteko argazki panoramiko nahiko zehatza erakusten dute eta hortik garaiko emakumeei buruz informazioa atera daiteke.

Halan, lanbideei eta generoari erreparatuta, ageri da lanbide batzuek emakumeak baino ez zituztela egiten, beste batzuek, ostera, gizezkoek baino ez eta, azkenik, gizezkoek zein emakumezkoek egiten zituztenak ere baziren.

Baita ikusi daiteke zenbat eta zenbat lanbide aldatu edo desagertu den gizarte-aldaketaren ondorioz; eskuzko langintza asko langintza industrial bihurtu dira eta beste batzuek guztiz galdu, desagertu egin dira. Ehule, harigile, kaltzetera, errotariak gaur ezin izango lukete lanbide horietatik irabazpiderik lortu; karretero, ikazkin, zestero, errementari, olagizonik jada ez dago, modu anekdotikoan baino.

Honek, ezin beste modutan izan, hizkuntzaren aldaketaren ganeko gogoeta eragiten dit: lexiko arloan, zenbat termino galdu den, gaur ia arrastorik itzi barik. Lanbide bakoitzak bere inguruan izaten du lexiko berezitatea, termino espezifikoeekin osatzen dena; gaur, jada, langintza desagertuta, hari dagokion lexikoa desagertu da. Hizkuntza etengabe aldatzen denez, beste arlo batzuetatik aberastu da, jakina, baina joandakoa joanda. Hizkuntzaren lexikoaren zati baten transmisioa eten egin da, bizimodua eta berau garatzeko preminak aldatu direlako. Gutxi ezagutu eta erabili ditzakete gaur, adibide bi aipatzearen, harigileen teknika eta tresneriari zegozkion terminoak edo errotaritzari zegozkionak.

2.2. 1825. Aulestiko Emakumezkoen lanbideak

Emakumezkoak eta gizonezkoak egiten zituzten lanbideak jaso ditugu aipatu dugun polizi erroldatik moldatutako taulan eta ondoren emakumezkoenak landu.

Lanbidea	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Baserritar	219	250
Ehule	0	22
Ikasle	17	6
Morro/Kriada	19	65
Jostun	0	21
Harigile	0	15
Kaltzetera	0	4
Errotari	6	9
Eskeko-elbarri	0	4
Jornalera	2	4
Okin	0	5
Maiorazgo	2	1
Armero	3	1
Laguntzaile	0	3
<i>Segun pueda</i>	0	1
Konfitero	1	1
Dendari	0	3

1. Taula: 1825eko Aulestiko Polizi erroldako datuekin sortutako taula.

Ehule ziren 22; jostun 21; harigile 15; errotari 9; kaltzetera 4; okinak 5; dendariak 3; eskeko edo elbarri 4 eta *Segun pueda* 1. Honetaz gain, kasuren batzuetan, emakumearen lanbidea: *acompañar a su marido* izaten zen, demagun, karreteroak gizona eta andrea laguntzaile izan daiteke adibide bat.

Hau aztertuta ageri da emakumeak oihalgintzan, josten, gorutan, kaltzaginen, ogiginen, artoa eta garia egiten, egiten zutela gehien; pentsatu dezakegu, nahiz eta horren datu objektiborik ez daukagun, etxerako bakarrik barik, inorentzako, saldu eta jarduera horretatik diru apurren bat irabazteko moduan egiten zutela lan.

Ondoren, lanbide bakoitzaren zenbait xehetasun eta ondorio logiko adieraziko ditut.

2.2.1. Ehuleak

Lan honetan 22 emakumek ziharduten, zapiak egitea, bistakoa da, jarduera oinarrizkoa zena, horixe zen jatzeko erropak, etxeko erropea eta behar ziren ohial guztiak lortzeko modua. Ehungintzari lotuta izango zen linua lantzeko jarduera, baina hori, era berean, baserriko jardueri lotuta zetorren, linua landatzetik haria lortzera arteko prozesua baserriko zeregina zen, emakumeek hazia ereiten hasi eta zapia ehundu arteko prozesuan ziren egile eta parteko, zalantza barik, nahiz eta eskuartean dugun erroldan lanbide moduan identifikatuta haria egin ondorengo ehuntze-prozesua baino ez dagoen.



1. Irudia: Linua iruten (Aires de Aliste, 2015)

2.2.2. Jostunak

1825ean jostea eskuzko langintza zen eta jostunak etxeetara joaten ei ziren hango jostekoak egiten. 21 emakumek egiten zuten lan hau.

Lehenengo josteko-makina 1830ean sortu ei zen eta 1855etik aurrera zabaldu ziren. Orduan, XIX. mendearen amaiera aldean bazeuden josteko-makinak eta badakigu eurok buruan hartuta joaten zirena etxeetara. Ez dira irudikatu behar, jakina, burdinazko ankak eta mahaia zuten makinak; zeregin horretarako baziren makina eramangarriak deitu genitzakeenak, hain eramangarriak bada ezen, horietariko bat gaur pisatuta, hamar kilotik gorako pisua duen. Hau honela dela, pentsa daiteke 1825ean josten egiten zutenak eskuz josten zutela.

2. Irudia: Josteko makina eramangarria. Isabel Goirienak utzita



2.2.3. Harigileak

Artiletik abiatuta zein linutik abiatuta, lantze-prozesuaren amaieran haria lortzen da; 15 emakumek egiten zuten haria, kopuru garrantzitsua deritzogu. Batetik, duela urte batzuk arte ezagutu dugun kaltza marragen haria ikusita eta, bestetik, gaur etxe batzuetan dituzten linuzko ohialak ikusita, pentsa daiteke hari loditxoagoa izango zela artilearekin lortzen zena eta meheagoa linuarekin.

Hari lodiagoa, gehien bat kaltzagintzarako, jertseiak, txalekoak eta berotzeko prendak zein sakuak egiteko erabili ohi zen. Hari mehea batez ere josteko zen; linuzko izerak ehuntzeko, alkondarak, atorrak, gonak, buruko zapiak, etab. Hariak tintatu ere egiten ziren oihalak bordatzeko, horren adierazgarri gaur ezagutzen ditugun bordatu azulak.



3. Irudia: Iruleak¹ (Apalategi, 2018)

2.2.4. Kaltzeterak

Kaltzagintza jarduera garrantzitsua zen. Badakigu kaltza-marragak baino lehen mantak zeritzenekin jastzen zituztena anak, uneren baten kaltzak luxuzko artikulua izango zela pentsatu geinke. José Arrue (1885-1977) pintorearen margolanak ikusita, gehienetan gizonezkoak abarka-mantak jantzita ageri dira; hor dugu baita ume kanta zera dinoena:

Tanparran pantan

Bihar Bilbora noie

Tanparran pantan

Abarka-mantatan

Tanparran pantan

Ta norentzako dire

Tanparran pantan

Gure Maiterentzat.

4. Irudia: Txistulari. Jose Arrue²



2.2.5. Okinak

1825eko erroldan espero ez nuen datu bat ageri da eta da bost emakumezko okin izatea, hau da, jarduera hori izatea euren ogibidea. Ez dugu azalpenik baina pentsa daiteke hiru edo lau edo agian bost etxetako labetan ogia egin eta saltzen zuten emakumeak zirela. Datu horri berezi deritzot, batez ere kontuan izaten badogu, baserrietan banaka edo binaka labak izaten direna eta etxe bakoitzean bertarako ogia eta labako-sua XX. mendearen erdi aldera arte egin izan dena; zeregin hori ia beti emakumeak egiten zuten; aldiz, gerora, ezagutu ditugun okindegien ereduaren gizonezkoak ziren, nagusiki, okin.

2.2.6. Errotariak

Artoa eta garia labore oinarrizkoak ziren familiaren elikadurarako eta ezinbestekoa zen garaua eiotea, ondoren, arto-urunarekin taloa, artoa eta esnea edo morokila jakiak prestatu ahal izateko edo ogi-urunarekin ogia, tremesa eta opila erretoko.

Izatez 14 errotaren arraztoa dago herrian, dakigula. Uraren erara hasita, Lea errekan Goikorerrota eta Behekorerrota elkar jotzen; Zetokizkoa, Ibekatx, Torreko errota, Ibeta errota, Amulua, Antzidorrekoa, Angiz errota, Olalde errota. Usuaga errekan Usuagako errota eta Usuaga behekoa. Muxo errekan Pagodiagakoa eta, azkenik, Ijutiko errekan Bolunaur eta Boluntxu. Errota guztiak ez ziren bardinak, jakina, batzuk errota bi zituzten barruan: arto-errotea eta gari-errotea; beste batzuk bakarra, baziren batzuk luzaro errota izan

¹ Orixeren *Euskaldunak* poemako 4. abestia

² 50. hamarkadan José Arruek margotutakoa. (Arrue, Jose. *Txistulari con paisaje al fondo*)

zirenak eta beste batzuk une txikiren baten baino izan ez zirenak.

Bederatzi emakume errotari eta sei gizonezko ageri dira erroldan. Izango ziren andra-gizonak zein nebarrebak, biak, zerabiltzaten errotak, baina baziren baita emakumeak bakarrik kudeatzen zituztenak ere, gitxienez hiru, kontua da zeregin horretan bederatzi emakume aurkitzen ditugula 1825ean.

2.2.7. Dendariak

Hiru dendari ziren herrian, baina ez zaigu errez egiten dendan garai hartan zer sal zitekeen pentsatzea, zeren erreximen ia autarkikoan bizi ziren biztanleak. Agian, zapatak, abarketak, zapi finak, kafea, azukerea, gatza, olioia, lanerako tresnak, atxurra, igitagia, eta holakoren batzuk. Izan daiteke baita, baserriko eszedente edo ekoizkin batzuk kaleko dendetan saltzea, arrautzak eta kaltzak, adibidez.

Elikagaiak etxean hartzen ziren (artoa, indaba, garia, baba, arbiak, gaztinak, sagarra, arrautzak, ehizako erbiak, txoriak, erreko arrainak, kirikinoak, etab.); gaurko olioaren ordez koipea, koipe geza, animalien gantzetatik lortutakoa erabiltzen ei zen.

Ontziteria (pitxer, plater, edarra, balde, etab.) buztinazkoa izango zen gehiena. Zerrenda horretan ez da inor ageri buztintzian lan egiten duenik.

Jantzigintzarako materialak (oihalak, hariak, artilea) etxean egiten ziren.

Oinetakoak erosiko zituzten? Etxean, animalien narrua landuta, narruzko abarkak egiten ziren baina abarketak eta zapatak erosi egingo zituztela pentsa daiteke.

Baserriko lanetarako tresneria erosi zitekeen, agian errementerian egiten ez ziren tresnaren batzuk?

2.2.8. Eskekoak eta elbarriak

Bestalde, errolda horretan deigarri gertatzen da eskeko edo elbarriak lau emakume izatea eta segun pueda bat; oster, gizonezko bat bera ere ez da eskeko, ez elbarri, ez *segun pueda*; agian, prostituzioa terminoa sahiesteko izendapenak dira? Honek emakumearen egoera penagarri garoaz; edo bestela esanda, jaubetasunik barik, hau da, ez gurasorik, ez ondasunik, ez teilaperik barik geratzen ziren emakumeen jarduera eskean ibiltea izatera. *Segun pueda* moduan ageri den emakume bakar hori, izan zitekeen teilapea zuena, eskeko-egoerara heldu ez arren, lantzean etxeren batera lanen bat egitera joaten zena; azken batean, ahal danean ahal dana egiten zuen emakumea. Ezin jakin pobreziaz edo minusbalioaz edo zorigaitzaz gain, zer bizi izatea tokatu zitzairen lau emakume horiei.

2.3. 1825. Aulestiko gizonezkoen lanbideak

Behin erroldako lanbideak aztertzen hasita, azaletik bada ere, gizonezkoek baino egiten ez zituzten lanbideak aipatuko ditut; hauetarikoak dira arriero (karretero), hargin, etxejaun, teilatugile, irakasle, marragero, beneficiado, ikazkin, harotz, parroco, zapatari, tirador (?), funditzaile, aulkigile, parroko, errementari, sakristau, olagizon, zirujau, albaitari, organujole, honeek danok gizonezkoen zereginak ziren.

Ez zaigu deigarri egiten emakumezkoen lanbideen eta gizonezkoen artean ageri den banaketa, espero zitekeenaren barruan dagoela esan genezake; hala ere, hacendado bi dira gizonezkoak. Lur eta ondasun askoren jabea denari deritzo hacendado. Bizkaiko Foruan ondasunak emakumei zein gizonezkoek berdin transmititzen zaizkiena kontuan izanda, bi eta biak gizonezkoak izatea izan daiteke holan edo, bestelan, izan daiteke baita emakume ondasun-jabearekin ezkonduko gizonezkoa erroldan ageri dena. Hortxe utziko dugu.

Bestalde, parroko, sakristau, organujole eta benefiziadu figura maskulinoak elizari lotuta daude.

2.4. 1825. Aulestiko emakumezkoen eta gizonezkoen lanbideak

Biek dituzten lanbideetan dagoz hauek: baserriar, ikasle, morroi eta kriada, errotari, jornalero, maiorazgo, armagile eta konfitero.

Daturik arruntena 219 gizonezko eta 250 emakumezko baserriar izatea da; baserrian bizi zirenean, XX. mendean behintzat, biak egiten zuten baserrian lan eta haxe zen bien lanbidea.

Morroii eta kriaden artean, desproporzioa dago, hau da, 19 dira morroiak eta 65 kriadak, hortaz, zerbitzari lana, batez ere, emakumeak egiten zuten.

Jornalean bi gizonezko eta lau emakumezko daude. Jornaleko langintza eguneko edo egun batzuetako lanari deritzo; arrunta izan zitekeen jornalean karretero, olagizon edo ikaskin jardutea edo baserriko lanetarako puntualki kanpoko norbait ekartea, zereginaren arabera, gizonezkoa edo emakumezkoa.

2.5. Datu deigarri bi

Bata ikasleen presentzia ugariari dagokio, 23 ikasle; bestea, tabernaririk ez agertzeari.

2.5.1. Ikasle jarduera

Deigarri gertatu zaidan datua da ikasle 17 gizonezko eta sei emakumezko izatea. Sei emakumezko izatea ikasle lanbidekoak deigarri ez eze datu intrigagarria iruditu zait. Zein ikasketa mota izan zitekeen? Aulestin, 31 urte beranduago oraindik ez zegoen emakumezkoen eskolarik. Bizkaiko Foru Aldundiak Aulestiko udalari 1861ean neskontzako eskola jartzeko diru-partida bat

prest eduki zezala esan eta udalak nesken eskola ez zela beharrezko erantzun zion:

“por otra parte tal escuela se conceptúa aquí de poca o ninguna utilidad puesto que todo el vecindario se compone de meros labriegos que viven en barriadas separadas entre sí y todas muy distantes del centro, que es una miserable calle, cuyos habitantes igualmente se dedican a la labranza de tierras sin distinción de sexos como se ve en todas las anteiglesias de Vizcaya. Así es que las familias, si bien suelen tomar algún empeño porque los niños aprendan alguna lectura y escribir alguna cosa, no hacen lo mismo con las niñas. Por eso en su gran parte la concurrencia actual y de siempre de la escuela, es de niños” (Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa. 0020/017)

Erabagi hori alkateak eta zinegotziek hartuko zuten holan erantzuteko; orduko pentsaeran kokatzeko ahalegina egin behar da erantzun hori ulertzeko, zeren arrazoi sakon handi barik bota zuten atzera ideia. Orduan ere baten bati akordatu zitzaion nesken eskola behar zela, baina herriko agintariek ez zioten ereizti. Historia.

Goikoarekin batera, deigarri egin zait hiru gizonezko armagile eta emakume bat izatea. 1825ean armagintza batez ere gerretarako burdinazko elementuak egiteari esango zitzaion, baina horrekin batera arkuak eta geziak egiteari ere armagintza zeritzon eta azken hauek egiteko Valladolideko Kantzilleritzara eskatu behar izaten zen baimena, bakoitzak zenbat arma egingo duen adieraziz, hain zuzen, honenbeste arku eta honenbeste gezi egiteko baimena eskatu behar izaten zen.

2.5.2. Taberna bi eta ostatua

Lanbideen artean ez da ageri tabernaririk, baziren, oster, taberna bi herrian, Marragerukoa eta Armaingoa, biak ei ziren udalarenak eta errematean ataraten ei ziren. Marragerukoa, gaur Nareara bidearen ezkerreko aldean, Adaneko ortua den lekuan zegoen; etxearen arrastoa bazegoen, Dendariko etxearen atzeko partean Marragerukoaren teilatuaren marka ikusten zen, antza denez elkar jotzen eginda zeuden; 1928an erre egin ei zen. Armaingoa, gaur Zarrabenta dena, (Aulestia 34). Eta ostatu bat bazen, Ostatukoa etxean, (Aulestia 42).

Taberna eta ostatuaren artean izan ei zen gatazka bat, tabernariak kexa, nonbait, ostatuan ardaoa saltzen zutelako; auzi hori Foru Aldundiak konpondu zuen zera erabakita: ostatuan herrikoei ez zitzaie ardaorik salduko eta ostatu hartzen dutenei bazkaritarako edo afaritarako lagin baino ez. Ardo-salmenta negozio errentagarria zen, nonbait.

2.6. 1825 urteko aulestiarren adina

1825eko erroldan biztanleen adina ageri denez, ondoko taula sortu ahal izan dut.

Adin-tartea	Gizonezkoak	Emakumezkoak
0-9	119	130
10-19	102	129
20-29	92	87
30-39	78	66
40-49	41	75
50-59	55	51
60-69	43	38
70-79	15	15
80-89	2	1
>90	0	1

2. Taula: 1825eko aulestiarren adinaren taula

Ikus daitekeenez, 0-20 urteko tartean gizonezko baino emakumezko gehiago bizi da, 38 gehiago; aldiz, 20-40 tartean emakumezko gitxiago dago, 17 emakumezko gitxiago; 40-50 tartean emakumeen kopuruak aurreko tartearikiko gora egiten du, alde nahiko deigarriagaz, 34 emakumezko gehiago. 50-70 tartean zenbakiak orekatuagoak dira, gizonezkoak prebalitu arren eta 70etik gorakoak parekatu egiten dira eta, azkenik, 90etik gorakoa 1 eta bera emakumea.

Honetatik, besteak beste, ondorio pareta atara daiteke; beti ere, datuok grosso modo kontsideratu direla onartuta. Bata, gizonezkotan baino emakumezkotan gehiago jaio zela une hartan. Bestea, taula sinkroniko honetako jaiotza-datuak eta 1785-1825 tartekoak antzekoak izango zirela suposatuta, ondoriozta daiteke 20-40 adin tarteko emakumezkoen hilkortasun-tasa gizonezkoena baino handiagoa zela. Pentsa daiteke, ugaltze-aroan zirenez, erditze unean gertatu zitezkeela heriotza horiek; hala ere, ondorio hau, sinesgarria izan arren, ezin dugu kontrastatu, beraz, komeni da gogoan izatea interpretazioa dela.

3. XX. Mendea

Aldaketaren abiadura gero eta bizkorragoa da, gero eta denbora tarte laburragoan gertatzen dira aldaketa handiak; demagun XX. mende hasieran hogeitau urtean gertatzen zen aldaketa, mendearen erditik gora hamar urtean gertatu zitekeela, gero urte bian eta gaur jada urte betean gerta daitekeela; kalkulaturik dago 2020an 6 hilabetero bikoiztuko dela ezaguera (Sañudo, 2005). Hori horrela, gizartean, adibidez, garraioan narretik abioirako aldaketa gertatu da 50 urte baino gitxiagoan. Bizikletatik motorrera eta motorretik autora 30 urtean egin da, berdin janzkeran, etxeko tresnerian, elikaduran, kulturaren, ohituretan. Kandelatik karburora, karburotik elektrizitatera eta elektrizitatetik elektronikaren arora di-da batean egin du gizarteak.

Ez nator, inondik ere, lehen hobeto bizi ginela esatera, esan nahi izango nukeena zera da: gaur garenaren zati bat aurrekoek erakutsi digutenaren emaitza dela. 1825eko 469 gizonetzko eta emakume baserritar horietatik gatzela gutariko asko; 84 morroi eta kriadetatik edo ehule, jostun, kaltzetera, marragero, ikazkin, olagizon eta ganerakoetatik beste asko. Gure bizimoduengandik hain bizimodu diferenteak bizi izan zituzten horiengandik zerbaite ikastea, zati hori identifikatzea eta ezagutzea, agian, geure oraina eta geure burua apur bat hobeto ezagutzeko baliagarri izan dakigukeela.

XX. mendearen hasierako lehenengo berrogei edo berrogeita hamar urteak XIX. mendeko azken urteen antz handia izan zezaketen, bigarren erdikoak, ostera, antza galtzen hasita ziren; apurka-apurka aldatzen hasi eta azkenerako arin-arin aldatu zen bizimodua. Halan da be, neu 50 urtetik gorako izanik, edo aurrekoen kontakizunetatik edo bizi izandakoarengatik ezagututako datuak adieraziko ditut, homogeneizatzean eta laburtzean zehaztasuna murrizten bada ere.

Informazioa talde bitan bereizi ditut, ordaindutako langintzetan zihardutenena eta ordainik gabekoetan zihardutenena, jakinda polo bi ez direla nahiko emakumeen eginkizun eta izaera guztiak batzeko. Aurrera egin baino lehen, ordaindutako edo ordainik gabeko langintzen irizpidetik at geratzen diren emakume baserritarrak eta emakume pobreak aipatuko ditut.

Emakume baserritarrei dagokienez, inoiz ez zaie egin duten lana onartu ez baloratu; zor historikoa zaie, zeren egoera honek ia XX. mendearen amaierara arte iraun du. Kontraesanez eta gune ilunez beterik zegoen sektorea: emakumeok lan egin dute, baserriko zereginetan gizonarekin batera ibili dira edo gizonen industriara jauzi egin zutenean, eurek bakarrik eutsi zieten baserriko jarduerai, etxea eta etxeokak, bai adinekoak eta bai umeak, euren kargu izan dituzte, baina inork ez die lan hori ordaindu ez eta langile izaera onartu, lana egin arren ez ziren ez langileak ez enpresariak; baserrikoa, ostera, zalantza barik zen langintza.

1972ra arte ez zitzairen uzten emakume baserritarrei gizarte asegurantza kotizatzen; gero ere familia-unitateko irabazien %50eko ekarpena egiten zutela erakutsi ezik, ezin zuten diru-laguntzarik eskatu eta diskriminazio egoeraren beste hainbat ezaugarri zeuden indarrean, egiari hutsik egin barik esan daiteke bazterketa eta ilunpea izan direla lan honetan ziharduten emakumeen eguneko konstanteak. 1980ko hamarkadan, dirudienez, Abenduaren 24ko 49/1981 Legea, *Estatuto de la explotación familiar y de los agricultores jóvenes* delakoaren ondoren, utzi zitzairen gizarte asegurantzan kotizatzen, baina orduan ere, kotizatu gabe lanean jardun izanagatik 50.000 pezetako izuna ordainduta; onartezina izan arren, onartu, ordaindu eta aurrera. Une horretatik emakume baserritarrei, gutxienez, ustia-lekuaren titularitatea edo kotitularitatea edo langile izaera, behintzat, onartu zaie.

Emakume pobreei dagokienez, hemen berton aipatuko ditut 1970 ingurura arte ezelako irabazpiderik gabe herrian bizi ziren destinu pobreak hainbat emakume. Zelan aipatu emakume honek? ezin, ostera, aipatu barik itzi. Babesik ez zuten emakumeak. Ezkongabeak, alargunak, ume-zurtz geratutakoak, jaubetasunik bakoak, batzuetan minusbaliotasunen bat zutenak, sozialki estigmatizatuta zeudenak, ezelako ondasunik ez zutenak; batzuk euren buruaren jabe izateko gaitasuna izanda ere, modurik ez zutenak, hau da, eguneroko ogia irabazteko zailtasun handiak zituztenak eta beste batzuk, agian, gaitasunik ez modurik ez zutenak, pobrezia gorrian bizi zirenak. Batzuk, ahuntza trailan hartu eta bide bazterretako bedar puntekin elikatutako animaliak ematen zien esneaz elikatu eta ahal zen bestean bizi zirenak edo behia izanda ere, hari bedarra emateko lur sailik ez eta noizean behin bateren batek eroandako zakukada-bedarra eman edo bide bazterretan jan eragiten zienak, beste batzuk, babesik barik bizi zirenak eta horretxenbeste ere ez zutenak, lantzean etxe baten edandako kafesne beroarekin neguari aurre egiten. Min hartzen da euren babes falta, gosea, hotza, garbitasunik eza gogoratzean; balio beza eurak aipatzeak munduan izan zuten bizialdia errekonoziduteko. Petra-Kasilda ahizpak, Dolores Iza Basabekoa, Señorita Ana Ruiz, Elvira Oreja, Margari Meabeansorena eta Gergoritzu Totorikaguena bai behintzat.

Gorago esan dudan moduan, bizimodua aldatuta zegoen aurreragoko hamarkadekiko, halan da be, gaitza izaten da arrastorik itzi barik ohiturak, kontuak, gertakizunak, lanbideak eta dena guztiz desagertzea eta, ondoren, orain bizi ez diren emakumeen bizimoduak, ekintzak eta ahotsak bizten ahaleginduko naiz; entzutez edo hurbiltasunez, ezagutu ditudan emakume aulestiarrik aipatuko ditut.

Batzuekin hartu-emonan izan dut eta kontuak esaten genituen alkarregaz; beste batzuek bakarrik euren lanbideetatik edo herritar izatetik ezagutzen nituen, beste batzuekin dendan edo kalean bat egiten nuen, denekin izan naiz uneren batean koetaneo.

3.1. Irabazpidedun langintzak

Atal honetan lan eginaz produktua saldu eta dirua irabazteko balio zuten jarduerak edo diruz ordaindutako beharrak hartuko ditut lanbidetzat.

3.1.1. Administrazio Publikoan

Herriko Administrazio Publikoan lan egin zuten Udaleko administrari Maribi Unamunok; ondoren, idazkari Kontxi Malleak eta administrari Elena Arriagak.

Aipagarri deritzogu ondoko datuari: XX. mendeko azken urteetako une batean, lanean eta karguetan hainbat emakume batera aurkitu ziren, halan, arlo politikoan Alkate Gema Mendieta, zinegotzi M. Angeles Rementeria; arlo administratiboan Idazkari

Kontxi Mallea, Idazkari laguntzaile eta liburuzain Elena Arriaga; osasun arloan mediku Itsaso Zarandona, ondoren Amaia Lavin eta unekada batzuetan, honen ordeko, Montse Plaza; farmazilari Arantza Castro eta ondoren Aitziber Mendizabal eta gizarte laguntzaile Arantxi Abrisketa; irakaskuntzan eskolako irakasleak, Itxaro Meabe, Lurdes Aritzaga, Inma Pagegi eta, bertako jantokiko langile, Libe Aranguena, hau da, emakumeek gobernatutako herria.

3.1.2. Agente komertzialak

Herrian aurrezki kutxa bat izan arren, dendak eta tabernak beste entitate batzuekin ere egiten zituzten transakzioak. Hornitzaileek erreziiboak kobratzeko agenteak zituzten herrian eta horietariko bi emakumeak ziren: Victoria Maruri zen bata eta Maria Angeles Zinkunegi bestea, azken hau Bilbon Agente komertzial ikasketak egindakoa zen.

3.1.3. Almazena

Almazena izenez ezagutzen zen, Aulestia 37 Bn zegoen, aurretik Donato Urkidik izan zuen eta 1965 ingurutik 1989ra Matea Malaxetxebarriak pentsu, lasto, alpapa eta ganaduentzako laborea saltzen zuen.

Baita almazena esaten jakon Torrezelain, Klaudio Unamuno eta Miren Garatek herrementeria izandako etxean garia eta urunaren trukea egiten zuten, 1970 ingurura arte. Markinako Okokiko errotatik ekarritako uruna baserrietatik ekartzen zuten gariarekin trukatzeko zen eta etxetara labako sua egiteko uruna eramaten zuten emakumeak; Nabarniztik eta Amorototik ere etortzen ziren emakumeak, binaka edo hiruak, osterea egiteko elkartuta, astoetan sakuda-gariak hartuta.

3.1.4. Ardao bodega

1955 ingurutik 1990 ingurura Toloño mendi ardao bodega izan zen, Aulesti 37an lehenengo eta 39an gero. Bertan egiten zuen lan Victoria Martinezek eta alaba Sara Quintanak; azkenik, negozioa Alvaro Quintana semeak hartu zuen eta gaur beronek, Maria Luisa Martinez andrearekin batera, jarraitzen du edari-almazena kudeatzen Ubilots aldean, sekaderoa deitzen zaion eraikinean.

3.1.5. Arrautzerak

Arrautzera izendapena ez da ageri hiztegiatan, baina modu espontaneoan horixe erabilten zen emakume hauen jarduera adierazteko; ez ziren arrautza saltzaile hutsak, oilo-granjak zituzten eta hango ekoizpena kudeatu eta saldu egiten zuten. 1965 aldera hasita, oilo granja txikiak edo ez hain txikiak ipini zituzten Felipa Idoetak, Miren Garatek, Mari Glori Susaetak eta Antoni Zelaiak; hauek plazetara joaten ziren arrautzak saltzen, horretarako gida-baimena, kotxea eta behar zirenak lortuta. Hauekin batera Kepa Ibarrek ere bazuen

oilategia eta berak kudeatzen zuen, baina saltzen Maritxu Maruri andrearekin joaten zen.

3.1.6. Dendariak

Baziren denda eta dendera kopuru dezentea. Denda kontzeptua aldatuta dago egiturari eta lekuaren antolaketari dagokionez, gaur ia supermerkatu edo antzerakoak irudikatzen ditugu baina aztertzen gabiltzan urteetan denda batzuek bakarrik denda ziren eta beste batzuek tabernarekin batera izaten ziren, alboko salaren baten, bereizita. Generoaren aldetik, ordea, gaurko supermerkatuetan legez, orduan erosi zitezkeen produktu gehienak egoten ziren arasetan antolatuta, bai denda motakoetan bai taberna-denda motakoetan.

Denda guztiak ez zuten genero berdina, batzuek etxeko tresneria, lapikoak, platerak, edalontziak, baserriko segak, serra edo igitagiak eta zorroztarriak; garbantzu, bakailao, kontserbak eta frutak izaten zituzten, beste batzuk ohialak, hariak, botoiak, janariak, belarritakoak eta drogeriako eta parafarmaziako produktuak, baina orokorrean, ia denetarik aurkitu zitezkeen denda hauetan.

Behakalean bat zen Etxe Handiko denda, Aulestia 16, Zesareo Ibarrola eta bere emazte Isidora Kortabitartek kudeatu zutena eta euren ondoren alaba Josefina eta honen gizona zen Martin Andrinuak. Beste bat Abeletxenekoa, Aulestia 11, Florentina Aranbururen denda, ondoren, Tomasa Uriguenek izan zuena eta gaur Tomasaren alaba Josune Zaldunbideren denda dena, Aulestia 13an. Goikalean, bat Martin Ulazia eta Maria Perearen denda izan zen, Kantokoa, Aulestia 60, ondoren, Jone Zaldunbidek izan zuena eta, azkenik, Juanita Legarra eta beren ahizta Mari Terek jarraitu zutena. Beste bat, Mari Juana Olaberena, Aulestia 56an izan zen denda, ondoren, Felisa Rementeriak hartu zuena eta Mari Luz Onaindiarekin batera kudeatu zuena. Hirugarren bat, Aulestia 35ean, 1936-1939ko gerrara arte estankoa izan zenez, Estankoa izenez ezagutzen zena; hau Zinkunegi Agirreurreta familiarena izan zen mende hasieratik; hain zuzen ere, 1901 urtea ipinten du etxe horretako balkoi nagusiko burdinariak; Nikolasa Agirreurretak eta Kandida Zinkunegik kudeatu zuten lehenengo, Kandida jostun ere bazen; Maria Asun Zinkunegi ilobak ere bertan egin zuen lan 1965 ingurura arte eta Maria Angeles Zinkunegi izan zen XX. mendearen azken hamarkadara arte dendari.

3.1.7. Taberna-dendak

Beste denda batzuk tabernarekin batera ziren. Horretarikoak dira, behekaletik abiatuta, Zarrabenta deritzona, Aulestia 34, Jose Martin Garro eta Martzel Goikoetxea, ondoren, seme biak eta euron emazte Mila Goienetxea eta Elena Zabalgojeaskoak izan zutena XX. mendearen amaierara arte eta gaur, denda kenduta, taberna-jatetxe dena.

Juan Martin Alkorta eta Visitación Alkortaren taberna-denda, Aulestia 50, gerra amaitu eta erbestetik

itzuli zirenean, Rosa Anituak hartu zuena errentan. Rosak JunMartinenean jarraitu zuen aldi baten Antonio Aboitzegaz ezkondu eta gero ere. Ondoren, gaur 44 zenbakia duen etxea berritu eta hara aldatu zuten taberna-denda negozioa; ondoren, dendarik gabe, XX. mendearen azkenera arte taberna izan zen. JunMartinenean ez da Rosa Anituak alde egin zuenez gero, tabernarik ez dendarik egon.

Goiko Konfiteriako taberna-denda, Aulestia 58, konfiteria-txokolateria ere izan zen; Leon Legarra eta Victoria Saez de Buruaga andra-gizonak izan zuten eta, ondoren, 1930 aldean Unamuno familiak hartu zuena, Juana Arriaga eta Juan Unamuno semeak lehenengo eta ondoren, Barbare, Klaudio eta Mirentxu neba-arrebek; azken kudeatu zutenak Klaudio Unamuno eta Miren Garate andra-gizonak izan ziren, 1950etik 1990eko hamarkadara arte.

3.1.8. Erregatera

Izendapen hau jasoten zuten baserrietan bertako generoa erosi eta herri handietara edo hiritara genero hori eroan eta saltzen zutenak; bitartekaritza zen euren lana.

Horretan lau emakume ezagutu genituen hogeigarren mendean. Katalin Meabe, Katalin Pio izenez ezagutzen zena, Pio Ituarte zelako bere gizona, arrautza batzen ibiltzen zen. Mari Kruz Goitiandia, honek gehien bat sagarra saltzen zuen; Juana Iriondok garraiorako kamioia eta Angizen kaleroa ere izan zuen; Goitiandiak eta Iriondok Bilbora eroaten zuten generoa eta han saldu; Erriberako merkatuan postua zuten. Laugarrena, eta zeregin honetan ibili zen azkena izango zen, Felisa Rementeria; honek astoz egiten zuen baserririk baserri ibilbidea, oinetakoak, ohialak, ontziteria eta baserrietan behar zituztenak eroan eta saldu eta han, batez ere, indaba erosten, gero saltzeko.

Baserriko bizimodua, XX. mendean, hondino nahiko autarkikoa zen; elikagai gehienak etxean lortzen ziren, baina izaten zen beste gauza batzuk erosi beharra; praktika ekonomiko arrunta zen soberakinak saldu, indaba eta sagarra izan ohi ziren saltzeko produktu ugarienak, eta salmentatik lortutako dirua etxean sortzen ez ziren produktuak erosteko erabiltea.

Erregateren zeregina mendearen azken aldera desagertu egin zen, besteak beste, etxeetan kotxeak erosi eta bakoitza bere eszedenteak plazara eroaten hasi zenean. Horren adibide dogu Maria Luisa Aranguena, urteetan Gernikako plazara joan zena euren sagastietako sagarrak saltzen.

3.1.9. Errotariak

Garia eta artoa laboreak hartzeak eta baserrietan labako sua egiteak XX. mendean nahiko luzaro iraun zuen eta errotariak iraun zuten lanean, gitxienez, lau errotatan: Beheko errotan Maria Bengoetxea eta gero Maria Bollar erraina; Ibekatsen Sabina Onaindia eta

Eujeni Bengoetxea koinatak; Torreko errotan Margari Kortabitarte eta Ibeta errotan Pilar Salvador.

3.1.10. Harategiak

Harakina gizona izan arren, harategiko lanak, tablakoak, emakumeek egiten zituzten, halan, Gervasio Uriarte eta Petra Onaindiak harategia, Aulestia 46, kudeatu zuten; ondoren, Julian Uriarte semeak eta Juanita Zaldunbide andreak 1950-1970 aldera arte egin zuten harategiko lana. Azkenik, hauen ondoren, Luis Zenarruzabeitia harakin eta Ana Mari Astorkia andreak tablako zereginetan jardun zuten, hauek 2000 aldera arte.

3.1.11. Ileapaindegiak

Maria Isabel eta Libe Ibarluzea ahizpak ileapaindegia izan zuten 1955-1965aldean, Donibane Enparantza 2. Hurrengo Jazinta Garetxanak izan zuen, Aulestia 31, eta honen ondoren toki berean Consuelo Aranburuk eta baita Begoña Aranburuk ere uneren baten. 1980-1990ko hamarkadetan pelukeria izan zuen Rosarito Unamunok, Aulestia 20, eta, azkena, Aulestia 12, Nieves Onaindiak, gaur egun Loli Arriolak duena.

3.1.12. Inudeak

Inudetak mendearen lehen zatian iraun zuen; hiriko familia dirutsuetako umeak elikatzeko esnea zuten emakumeak behar izaten ziren. Dirudienegizarteko goi-mailetakoko emakumeak ez zituzten euren umeak eradoskitzen eta eginkizun horretarako herrietatik eramaten zituzten esne ona zuten emakumeak; hirian bizimodu baketsua, jasoa eta umeari titia ematea ze beste zereginik bakoa izan arren, ondo jantzita eta ondo elikatuta bizi arren, pentsa daiteke hango bizimodua gazi-geza izango zitzaizela etxean euren umeak itzi eta inoren umeari esnea ematera joaten ziren emakumeena. Edozein kasutan, kopla zaharrak dinoenez:

Bilbo zarrean dirautse

inuritu bik alkarri

ai neska hau bizimodua

luzaro iraun baleri.

Mari Kontze Aranguena, Galantenekoa, XX. mendearen lehenengo urteetan eta Nikolasa Kareaga, Kalebarrenetxebarrikoa, 1920-1930 inguruan izan ziren zeregin horretan.

3.1.13. Irakaskuntzan

Hogeigarren mendearen lehenengo aldia Nikasia Lotinok maistra lana egin zuen. Mendearen erdi aldera Maria Angeles Reizabal eta Luzia Urkidi ikasketak egindako maistrak izan ziren. Beranduago Mari Luz Onaindiak ordezkapenak egin zituen Goierriko eskolan eta kaleko parbuloen eskolan.

Eskola partikularrak ematen ere 1965-1985 ingurura arte Maria Angeles Rementeriak eta Gema Mendieta jardun zuten.

XX. mendearen azken urteetan hasita irakaskuntzan, ikasketak egindakoak, maila guztietan dihardutenak dira, dakigula Lurdes Aritzaga, Maria Isabel Armaolea, Aintzane Arrieta, Ana Bustindui, Gema Mendieta, Lurdes Perea, Nieves Unamuno, Maribi Unamuno.

3.1.14. Jornalean

Emakumeak ere izaten zituzten jornamean egiteko zereginak, halan, inoren etxeetara ura eroaten herriko iturrietatik ekiten zion Gregoria Totorikaguenak, Gregoritzu, herriko etxeetan 1961ean ura sartu orduko; baita etxeetan noizean behingo lanak egiten ere, halan, lanazko koltxoak txipitatzen edo arenadurak egiten. Arenadura deitzen zitzaion oholezko beheak areaz eta beranduago lejiak eskobilatu eta garbitzeari.

Jornaleko zeregina izaten zen baita jaboladura edo lexiba egitea, urik ez ikuzgailurik ez egoan garaian, etxean garbitu eskuz eta errekan edo Iturrigunen trasteak jotea. Ura etxeetan sartu zenean, lan hori etxean egiten zen eta emakumeak errekarra joateri utzi ahal izan zioten. Zeregin horretan jardun zuen jornamean, guk dakigula, Bernardina Madariagak.

3.1.15. Jostunak

Pret-á-porterra agertu arte, hau da, jostea industrializatu arte, emakume asko izan zen jostun. Jantzigintza mota barria 1970 inguruan helduko zen Aulestira. Etxerako, gizona koentzako, emakumeentzako zein umeentzako, oheko arropa, arkondara, praka, bonbatxo, gona, marinera, abrigo, jake, arropa, brus, komuninoietako jantziak eta behar zen guztia josten zuten jostunek.

Jostunen zeregina ez zen bakarrik jantzi barriak egitea, horrekin batera abrigo eta jakeei buelta ematen zitzairen edo koilu barriak egin edo ume erropak luzetu, zabaldu, neba-arreben arteko erropak egokitu, nagusienak txikiagoentzat, prakei adabak ipini eta horrelakoak.

Antzinakoenetik abiatuta, Dorotea Zabalenekoa, etxeetara joaten ei zan josteko makina buruan hartuta. Gero, 1940 inguruan, bakoitza beren etxean eta mahaidun makinekin josten hasi ziren; holan ekin zien Antonia Zelaia, Jostuntxu izenez ezagutzen zenak, Candida Zinkunegi Estankukoak, Begoña eta Trini Unanue Telletxeakoak, Gregoria eta Esperanza Aranburu Otatzahandiakoak, Eusebi eta Zizili Legarra Artetxeakok, Primi Enbeitak, Josefa eta Felipa Idoetak, Felisa Aranburu Muleteiko eta alaba Aintzane Urizarrek, Paskasia Uriguenek, Juli Urizarrek, Mari Dominge Zelaia, Consuelo Pinedo Letrauneko eta Mertxe eta Mari Carmen Etxebarria alabek, Maria Dolores Atxurra Torrekok, Mari Tere Legarra Kantokok, Mari Tere Uriguen Jesusenekok, Maria Pilar

Anituak eta Ana Mari Bollar Astitxenekok; gaur oraindik badihardu Fina Mari Onaindia Orrospengok.

3.1.16. Kabanako langileak

1960 aldera Garabilla arrain-kontserba enpresa lekeitiarra Aulestin hasi zen kontserbarako arraina prestatzen, handik laster kabana eraikuntza handia egin zuen Ibetan eta 1975era arte jardun zuen. Lekeitiotik ekartzen zuten arraina eta bertan arraina garbitu eta kontserbarako prestatzen izaten zuten lana herriko emakumeak. Batzuek eguneroko langile ziren, beste batzuek noizean behingoak edo etxeko zereginak libre izten zizkien tarteetakoak. Enpresa honetan, emakumeekin batera, 12 urtetik gorako neskato-neskattilla ugari ibili zen, batzuk urteetan, beste batzuk hilabete batzuetan. Kabanako lanean hain ibili zen emakume ugari, bada ezen zail deritzogu izenez aipatzeari.

3.1.17. Kriadak

Etxeetan zerbitzari izan ziren emakume ugari, dela ume asko izan eta horiek zaintzeko laguntasuna behar zelako, dela arropa eta etxe-gobernua egiteko laguntasuna behar zelako; atal honetan ez dut izenik aipatuko zeren ez genuke zerrenda zehatza lortuko. Ohikoa zen emakume gazteak herriko etxeetan edo alboko herrietara neskame joatea eta bertan bizi izatea.

Baita bata patrona eta bestea kriada, zeregin horretan jardun zuten abadearekin eta parrokoarekin emakume bik: Juanita Almeida Don Justino Oar-Arteta abadearen patrona eta Valentina Maruri Don Emilio Kortabitarte parrokoaren kriada..

3.1.18. Marragagintza

Marragan jarduteak jarduera bat baino gehiago hartzen zuen. Ardi-lana garbitu, sikatu, izpitu, gardatu, haria egin eta, azkenik, kaltzetorraztekin kaltzak edo behar ziren prendak egin.

Askorentzat ez zen lanbidea ez diru-iturria, bai, ostera, etxeko ekonomiari gastua murrizteko modua. 1960 inguruko Aulestin emakume askok egiten zuen puntua, honetan ezin dut izenik esan, zeren jarduera hori arrunta zen eta gitxi-gehi, ia denek egiten zituzten etxerako jertseiak, kaltzak eta, erositako hari meheagoekin, barruko arropa finak; halan, umeei esport finak eta barruko erropak eta ume zein nagusientzako jertseiak egitea arrunta zen. Baserrietan artilezko kaltza marragak, txalekoak eta jertseiak egitea ere nahiko ohikoa zen eta lehenago, dinoenez, egur-ikatz erabiltzeko sakuak ere marragazkoak ei ziren.

Produktu bi ziren salduenak, bata haria eta bestea kaltza marragak. Haria goruan eta errubedan egiten zen, bakoitzak zekien tresnan, Ageda Gabiola eta Turubi Kareagak goruan egiten zuten, Justa Uriarte Justatxuk, Simona Kareagak, Juana Elordik, Gregoria Astorkiak, Bernardina Madariagak tornuan. Haria egiten zuten

emakumeok kaltzak ere egiten zituzten; alderantziz ez zen gertatzen, hau da, kaltza egiten zuten guztiek ez zuten haria egiten.

Kaltza marragak egin eta saltzeko jarduerak nahiko luzaro iraun zuen, 1980 ingurura arte bai. Anastasia eta Birkine Urizarrek, Basili eta Mertxe Arratek, Ana Mari Astorkiak, Bernardina Madariagak eta Luzia Olabarriak ere marragan egiten zuten. Herriko dendetan, Bilboko dendaren batzuetan eta baita itsas herrietan marinelentzako, itsasorako, saltzen zituzten.

3.1.19. Neskatoak langintzetan

Gaur sinesgaitz bada ere, neskatoak lan egitea ez zen arraroa, halan, mendearen lehen erdiko neskato batzuek Karea aldeko kanteretan, minerala garbitzen jardun zuten; bigarren erdiko askok kabanen arrain garbitzen eta, ohikoena zena, mende osoan egin zituzten neskato gazteak kriada lanak eta umezaintzaile lanak, etxean zein kanpoan; kanpoan egiten zenean, ohikoa ei zen urtean jantzi barri bat egitea, konpentsazio gisa.

3.1.20. Okinak

Angizko okindegian Jose Migel Zaldunbidek eta Juana Mallabiak ogia egiten zuten eta herrian eta herbestean saldu. Automobila erosi eta lineako zerbitzua ere izan zuten, baita Aulestitik Lekeitiora ogia eta bidaztiak eroan eta ekarri ere, 1926tik 1933ra bitartean; 1933an *Automoviles Vascongadosei* saldu ei zien autobusa eta linea.

Txirtubinean ere okin egiten zuten Segundo Intxausti eta Klaudia Malaxetxebarriak lehenengo, Pedro eta Patxi semeak gero; Eulogi Onaindia, Klaudiaren lobeak ogi-saltzaile jardun zuen.

3.1.21. Tabernariak

XX.ean taberna ugari zan Aulestiko kalean; aipatzen ditudan guztiak ez ziren batera egon, baina zazpi batera egon izan dira. Honeetan emakumeak egiten zuten lan, batzuk bakarrik, gehienak gizonagaz batera. Zeregina tabernariarena gehi sarritan jatetxearena izan ohi zen; kasuren batean osatua ere bazen; jatetxe-lana nahiko handia zatekeen; ezkontza batzuk tabernan egiten ziren eta beste batzuk etxean, tabernako sukaldaria etxera eroanda. Enterruen eta honeen ondorengo elizkizunen amaieran otordua ematen zitzaion elizkizunetara etortzen zen senitarteko zabalari, hau ere tabernan zein etxean. Aipatu ditzakegu Lorenza Maruri eta alaba Mari Tere Uriguen Jesusenean, Nikolasa eta Bitoria Alberdi Txistunean, Maritxu Maruri Kepanean, Martzel Goikoetxea lehenengo eta Mila Goienetxea eta Elena Zabalgojeaskoa gero Zarrabentanean, Rosa Anitua lehenengo JunMartinenean eta gero Aboitizenean; Pantxike Isunza eta alaba Begoña Perea Kornelionean; Juli Aranburu eta Maritxu eta Juanita ahizpak Marianonean; Felipa Idoeta Ilunzarren; Evarista Gabiola Adanenean; Juana Arriaga lehenengo, alaba

Barbare Unamuno gero eta Miren Garate azkenik, Unamunonean; Isabel Madariaga Errebidan, Anateres Plaza Anateresenean Torrezelain; Jesusa Arbulu Lukasenean.

Ikus daitekeen moduan, tabernak, bikoteak kudeatzen zituenean, gizonaren izenez identifikatzen ziren, nahiz eta bertan tabernari zein sukaldari lanak emakumeek egin.

Honeek kaleko tabernon ganera baziren beste hiru; bat Narea Goitian, Mari Tere Astorkiak kudeatu zuena 1960-1975 tartean. Beste bat Malats Artian, han Luisa Onaindiak izan du taberna 1965 ingurutik oraintsu arte. Kanteran ere izan zen taberna, kanterako langileei jatordua ematen ziena, hau 1955-1967 bitartean Bienvenida Herrerok kudeatu zuen; gerora, Itziar Zubizarretak eta hau erretiratzean Rakel Lekuonak, 2018ra arte. Izan zen beste bat, kanterako langileekin lotura zuena, Markinara bidean, Atx-Olea etxean, Praneske izeneko emakume batek kudeatu zuena 70eko hamarkadara arte; Ereñokoa ei zen, ez dugu deiturarik lortu.

3.1.22. Zerbitzariak

Herriko zein herbesteko tabernetan neska gazteak zein edadetuagoak ere zerbitzari lan egin zuten, mahaiak zerbiduten esaten zena; batzuk noizean behin, esate baterako, ezkontzetako banketak zerbiduten, hileta-elizkizunen ondorengo otordua zerbiduten eta jaietan; beste batzuk eguneroko edo asteburuetako langile herbesteko jatetxeetan-eta. Ez litzateke erreza zeregin honetan zenbat lagun ibili zen zehatz esatea, batzuek urteetan beste batzuek puntualki, batzuek inoren kontura beste batzuek etxeko edo familiartekoren baten negoziatan, neska gazte asko ibili zen lan honetan.

3.1.23. Denetariko enpresa eta jardueretan

Etxeko enpresetako langile izan dira batzuetan emakumeak, halan, Lorenza Marurik Jesuseneko txokolaterian eta Miren Garatek Unamunonekoan.

Beheko konpiterian ezkontza banketak zerbiduten zituzten; Juanita Lejardik sukaldari eta gozogintzan jardun zuen.

Blanca Etxeartek brodatugintzan jardun zuen.

Emakumezkoen kristalezko kaltzak luxuzko artikulua ziren garaian, kaltzetan karrerak egiten zirenean, konpondu egiten ziren. 1970eko hamarkadan oraindik kaltza-konpontzea lana zen. Jarduera hori egiten zuten Mari Tere Uriguenek, Blanca Etxeartek eta Amparo Ibarrak.

Ardiak zituzten Eusebio Bengoetxea eta Trini Martiartuk; 1973tik aurrera 2010era arte, Triniren zeregina izan zen ardi-esnearen prozesamendua, hau da, gaztea egin eta herrian zein herbestean saltzea.

Jesusa Arbuluk eta Kresen Urkidik Andres Urkidiren zerratokian egin zuten lan oholean mendearen azken urteetan eta Yolanda Urkidik zerratokiko kudeaketan.

Gloria Mendibek etxeko zerratokiaren kontabilitatean jardun zuen.

Maria Angeles Rementeriak etxeko Urre eraikuntza-enpresan jardun zuen.

Emakume kopuru handia da inguruko enpresetan lanean zihardutenak.

3.2. Irabazirik zuten ez dakigun eginkizunak

Ondorengo jarduera hauek ez dakigu oradinduta ala ordainik barik egiten ziren; zalantza da hauek langintza moduan har daitezkeen; zeregintzat joko genituzke eta, seguruenik, borondatezkoa izango zen.

3.2.1. Defunterak

Defunterak izenez ezagutzen ziren, elizako sepulturak atondu, oblatak ipini eta kendu, kandelak ixotu eta amatatu eta elizako zereginak egiten zituzten. Baziren ahizpa bi, Simona eta Venantzia Uriguen, 1960 ingurura arte.

3.2.2. Dotrina irakasleak

Dotrina irakastea abadeen zeregina izan arren, sasoi baten, 1960 inguruan, Blanca Etxearte eta Mari Tere Uriguen ibili ziren umei dotrina erakusten.

3.2.3. Irakurle

Herritarrenen bat atzerrira joaten zenean edo ospitalera edo familiarik urrun zebilenean, etxekoekin komunikazio-bidea gutuna idaztea zen. Idazlea izango zen idazten ekienek bat eta gauza bera irakurlea. Gutun idazle eta irakurle funtzio hori, dakigula, Angela Etxeartek egiten zuen, bidaltzeko gutunak idatzi eta kanpotik heltzen zirenak irakurri.

3.2.4. Organujolea

Beren garaiko ikasketetan solfeoa eta musika ikasi zuenez, Maria Angeles Reizabal organujole izan zen XX. mendean, Felix Ibarluzeak 60ko hamarkadan herbestera alde ondoren.

3.3. Irabazpide bako jarduerak

Irabazpide bako jarduerak atalean, ezelako irabazi material barik egiten zituzten jarduerak aipatuko ditut. Jakina, hauek ez daude lanbide moduan sailkatuta, ez daude ordainduta, ez daude zeregintzat hartuta ere; ondoren esango ditudan horietariko batzuk ez dute kontsideraziorik izan; bizitzaren arnasa guztietan hortxe

egon arren, inork ere ez ditu ikusi eta ikusten ez dena ezin aintzat hartu.

Batzuk bizitzari eusteko oinarrizko jarduerak dira. Honeek zereginok, beste lanbide bat izan zein ez izan, emakumeek egiten zituzten; batik bat, elikadurarekin, garbitasuna eta osasunarekin, janzkerarekin eta etxearen zaintzarekin zerikusi zuten jarduerak ziren. Elikadurari lotuta, gitxienez, janaria prestatu, labako sua egin, ortuaria hartu; osasuna eta garbitasunari lotuta jabonadurak egin, umeak garbitu, jazteko prendak josi edo puntuz egin edo jostunari eragin. Azkenik, etxearen zaintzari lotuta etxea jaso eta apaindu. Hori gitxienez.

Beste batzuk maitasunezkoak eta portaerazkoak dira: umeak haztea eta euroi osasuntsu bizi izateko bideak erakustea edo umeen heziketa, familiako kideen osasuna, etxeko gazteak zein zaharrak, sendo aldian zein makal aldian zaintzea emakumezkoen ardura izan da.

Beste batzuk ludikoak dira eta berbearen bidez egikaritzen dira; halan, kontuak, kantak, esaerak, ipuinak hartzen dute lekua eta hauen bidez, tradizioa eta pentsaerak, jarrerak, ohiturak, balioak, etab. ekarri ditue gureganaino.

Bizi izateko modu horrekin eta euren giza harremanekin, euren portaera sozial zein indibidualekin, emakumeak zeharretara balioak erakutsi dituzte: jatorritasuna, erantzukizuna, errespetua, zuhurtasuna, eta beste.

Atal honetan politikariak, emaginak, bedarzialeak, kontariak eta kantariak izentatuko ditut.

3.3.1. Emakumeak politikan

Emakumeak nagusiki esfera pribatuan jardun arren, alor publikoan ere, zehazki politikan, ibili ziren. Lehenengo, XX. mendean hasiera aldean, errepublika garaian; gero emakumeen jardura politikoa eten egin zen Francoren diktadura garaian eta, diktaduraren ostekoan, mende-amaieran, emakumeak berriro parte hartu zuten politikan.

3.3.1.1. 1936-1939ko gerra baino lehen

Mende hasierako jarduerari dagokionez, EAB (Emakume Abertzale Batza) EAJren (Euzko Alderdi Jeltzailea) barruan eratu zen, birritan, errepublika garai bietan. Lehenengo 1922-1923 artean, lehenengo errepublikaren garaian eta bigarrenez, Primo de Riveraren diktaduraren ondoren, 1931-1936 artean, bigarren errepublikaren garaian, hain zuzen; 1936-1939ko gerrak eten egin zuen EABren jarduna.

EAB komunitate femenino moduan izendatzen du Retolazak (2012), komunitate femenino eta komunitate feminista bereiziz. Biak talde sozialak izanik, lehenengoak emakume subjektuak biltzen ditu, bigarrenak subjektu feministak.



5. irudia: Goiko hiladan: Kornelio Urizar, Birkin Urizar, Mutikoa?, Anjel Urizar. Beheko hiladan: Polendiñe Aranburu, Josebe Ibarrola, Gotzone Etxearte, Laurentze Maruri. Kiñu baten 89 or.

XX. mende hasieran abertzaletasun jeltzaleak emakumeen parte-hartzea bultzatu zuen, emakume laguntzaile eta babesle izateko helburuz, abertzaletasuna eta fede katolikoa oinarri zituela sortu zen EAB. EABko emakumeak, *ama funtzioan oinarrituta, ama biologiko, ama kultural eta ama sinboliko ziren eta idazle eta hizlari ibili ziren* (Retolaza, 2012:206).

Kontestu horretan eta funtzio horiekin sortu zen Aulestiko EAB ere 1932ko irailean. Lekuko bati galdetuta: *Eta, zer egiten eben ba? --Ba soldauei kartak egin eta, jertseiak eta kaltzak eta holakoxeak.* Zehaztasun gehiago barik.

Ganurkuluk (1932), ezizen horrekin, Euzkadi aldizkarian argitaratu zuenez, Aulestiko EABren organigrama hau zen: Lehendakaria: Ikerne Alkorta; Lehendakari ordea: Miren Josebe Aransolo; Diruzaina: Birkinde Urizar; Idazkaria: Gotzone Etxearte; Ordezkariek: Bingene Goitiandia eta Pelikane Aranburu.

Emengo abertzaliok poz-pozez gagoz, ba, emakumiok be sukaldetik urtenda geuri lagun egiteko gertau jakuzelako. Emakume Abertzale-Batza atondu dabe, ta oin dabiz ikurin eder bat egiten. Eta au dala-ta nai dabe il onen 18'gn ikurin onen onespina ospatzeko jai polit bat, era onetara antolatutia.

(...) Arratsaldeko lauretan, agurtza deuna amattu ondoren, berbaldijak. Askeria Enbeita'k bere itz neurtu aberkoyakaz emongo dautsa. Gero Alkuna'tar Libe'k, Urkiaga'tar Estepan'ek ("Lauaxeta") eta beste izlariren bat. Gero illuntserarte jolasak tanbolin soñuagaz.

(...) (Ganurkulu, 1932a)

EABren sorrera ospakizunetan antzerkia, meza abestua, EABko ikurrinaren bedeinkapena, dantzariak, bertsolariak, bazkaria, hitzaldiak eta pelota-jokoak egin zituzten. Antzezlanari dagokionez, Imanol Sota

Aburtoren *Negarrez igaro zan atsua* antzeztu zuten Gotzone Etxearte, Zuriñe Ruiz-Azua, Josebe Ibarrola, Laurentze Maruri, Polendiñe Aranburu eta Miren Uriguenek

Mitinari dagokionez, Euzkadi Buru Batzarreko eta herriko agintariekin batera, EABko kide ziren emakume bik egin zuten berba; bata, Libe Iñesi Altuna Okamika, Joseba Altuna idazlearen alaba eta, bestea, Sorne Unzueta; Libe Altunak une hartan 15 urte ei zituen eta Sorne Unzuetak "Urtasus" 31. Eurekin batera zen mitinean Estepan Urkiaga "Lauaxeta" idazlea, herrietako EAB sortzeaz eta emakumezko mitinlariak formatzeaz arduratzen zena (Aranguena, X. eta Onaindia J.M. 2007:92).

Ikus daitekeen moduan, izenak Sabino Aranaren izendegiaren arabera euskaratuta zituzten, hau da, Zuriñe, Josebe, Laurentze, etab. Aipatuko dut, Errepublikari garaian jaiotako ugarik dituztela izenak euskaraz eta 1936-1939 gerraren ondoren, izen horiek gaztelaniazko bihurtu zirela. Izan zitekeen, adibidez, *Miren Bittore* jaiotzako inskripzioan eta gerora *Vitoria* izenez ezagutzea; Gotzone izan paperetan eta gerora *Angeles* edo *Angela* izenez ezagutzea.

Amaitzeko, esan, EABko emakume horiek ez zutela status quorik kuestionatu; ezagutzen zutenetik abiatuta, *gizonezko aktiboek*, pentsalariak, gidatuta antolatuta zutela euren jarduna. Hori horrela dela dirudi, ez ziren femenino-feminista disjunkzioan mugitu. Ezin zaie, oster, ukatu, esparru pribatutik, anonimotasunetik abiatuta, antolatu eta plazara jalgi zirela eta ahotsa, pentsamenduaren ahotsa, ideologiarena atera egin zutela.

3.3.1.2. Francoren diktaduraren ondoren

Mende amaierako jarduerari dagokionez, 50 urte inguruko tartearen ondoren, Aulestiko emakumeak hautagai-zerrendetan agertu ziren. Hona 1987, 1991, 1995 eta 1999ko udal hauteskundeetan hautagai aurkeztu ziren emakumeak, ekitaldi bakoitzean botu kopuru altuagoa lortu zuen alderdiaren hautagai-zerrendako emakumeengandik hasita. Azaldu behar da Aulestiko Udal Batza zazpi hautagai osatzen dutela eta zerrenda bakoitzean hamar hautagai aurkezten direla, alegia, zazpi lehenengoak gehi hiru ordezko.

Halan, 1987ko Udal Hauteskundeetan Herri Batasunak Mirian Anitua aurkeztu zuen bosgarren hautagai; Josune Zaldunbide zazpigarren eta Arantxa Arrien bederatzigarren. Hauek ez zuten zinegotzi jardun lau hautagai lortu baitzituen Herri Batasunak. EAJk M. Angeles Rementeria aurkeztu zuen zerrendako bigarren hautagai eta zinegotzi izan zen, hiru hautagai lortu baitzituen EAJk.

1991ko Udal Hauteskundeetan Herri Batasunak Josune Zaldunbide aurkeztu zuen bederatzigarren hautagai eta honek ez zuen zinegotzi jardun lau hautagai lortu baitzituen Herri Batasunak. EAJk M. Angeles Rementeria aurkeztu zuen zerrendako

hirugarren hautagai eta Begoña Perea Isunza zazpigarren; Rementeria anderea zinegotzi izan zen, hiru hautagai lortu baitzituen EAJk. .

1995eko Udal Hauteskundeetan Herri Batasunak Gema Mendieta aurkeztu zuen lehen hautagai eta Maribi Unamuno zortzigarren; Mendieta anderea alkate izan zen, lau hautagai lortu baitzituen Herri Batasunak. EAJk M. Angeles Rementeria aurkeztu zuen zerrendako lehen hautagai, Mila Urkidi seigarren eta Mari Luz Onaindia zazpigarren; Rementeria anderea zinegotzi izan zen, hiru hautagai lortu baitzituen EAJk.

1999ko Udal Hauteskundeetan Euskal Herritarrok taldeak Gema Mendieta auzkeztu zuen lehen hautagai, Arantxa Arrien seigarren, Lourdes Aritzaga zazpigarren eta M. Tere Bengoetxea hamargarren; Mendieta anderea alkate izan zen eta Arantxa Arrien eta Lourdes Aritzaga zinegotzi, Euskal Herritarrokek zazpi kandidatu lortu baitzituen.

3.3.2. Emaginak

Hogeigarren mendean, hasierako urteetan, umeak etxean jaioten ziren. Zeregin horretan laguntzen zekiten emakumeak ziren herrian; halan, kalean Gregoria Astorkiak egin zuen eginkizun hori, agian gehiagok ere egingo zuen, baina ez dut horren notiziarik. Zuberon Ana Josepa Astorkia ei zen auzoko umegintzetan laguntzen zuen emagina. Ez dugu lortu beste auzoetako daturik.

Urteak aurrera, Aulestin medikua zegoen eta erditze unean berak laguntzen zuen; medikuari emakumeak laguntzen zien. 1957 aldean hasita, umeak jaioteko zirenean, emakumeak klinika partikularretara joaten hasi ziren eta azken urteetan Gurutzetako ospitalera. Hor amaitu ziren herriko emaginak.

3.3.3. Bedarzak

Emakumeak izan dira inoren osasunaren eta ongi izatearen arduradun. Gaurkoa lako osasun-zerbitzu aurreraturik ez zegoenean, bedarrak eta lorak eta naturak ematen zuenarekin konpontzen ziren, ahal zen bestean. Emakumeak sendabedarren indarra eta propietateak ezagutzen zituzten eta jakituria hori, esateko, geure egunetara arte heldu da. Gehienetan erremedio arruntak ezagutzen zituzten. XX. mendean, medikamentuek ordezkatu zituzten sendabelar gehienak.

Hala ere, medikamentuak eta antzinako erremedioak konbinatzen zituzten emakumeak baziren. Miren Urkaregik erredurak zein kolpeak osatzen zituen pomada egiten zuen, bere aitak erakutsi ziola esan zidan. Miren Garate bedarzak zein eta enplastoak, tisanak eta masajeak gustuko zituen; berbena bedarrezko enplastoak; karraskila, arto-bizer, azeri-buztan, asun-urak noiznahi hartzen zituen eta etxekoei ematen; berakatza, kipula, epaibedarra eta abar zolduak osatzeko aintzat zituen, udan mantzanilatzen joatea ere

errituala zuen; gorputza alkohol berok edo pattar berok sendo igurtzea ondoeza zein nekea kentzeko erabiltzen zuen; gatz-ura, binagrea...

Emakume bati bedarren ezagutzaz galdetu eta umea galdu eragiteko bedarrak ere bazekizkiela berak esan zidan, baina ez zihoala zeintzuk ziren esatera, hori arriskutsua zela-eta. Uste dot ez lukeela bere izenik esatea nahi izango, lotsagarria eta gaiztakeria handia begitantzen zitzaion-eta.

Inoiz ulertu ez dudan erremedioa da hagineko mina izanda, okozpetik burura zapia lotzea.

3.3.4. Ahozko tradizioaren transmisore

Ahozko tradizioaren hariari eutsi deutsee hainbat emakumek eta oraintsu arte izan dira gurekin. Ahozko tradizioan sartuko genituzke ipuinak, kantak (elizakoak, ume-kantak, kanta-paperak), erretratuak, erretratatuak, esakerak.

3.3.4.1. Ipuin kontatzaileak

Ipuinak kontatzean hizkuntzarekin batera, munduaren ikuskera, bizimoduaren barri, maitetasuna, taldekide izaera, partaidetasuna, integrazioa eta kohesioa eskaintzen ziren. Ez bakarrik umei, baita nagusiek euren artean ere, behin eta berriro ipuin batzuk kontatzen zizkien elkarri.

Izan zitekeen munduaren ikuskera zabala ez eskaintzea. Peru eta Maridxen ipuinak, laminenak, inguru hurbilean kokatuta kontatzen dira, mundu itxia agertzen da eurotan; bizi ziren garaiko egiturak eta bizimoduak transmititzen zituzten. Erreza da, gaurko begiradatik begituta, ipuinon edukiak gaitzestea; berriz ere bizimodu, ezaguera, ohitura, izaera, eta abarren aldaketaren ondorioz, batzuetan inozoegi, ximpleegi, totoegi ereizten diegu, baina bistakoa da ez dela zilegi ipuin horiek gaurko begiekin, gaurko bizimodu eta esperientzietatik epaitzea; justu izateko, euren garaian kokatuta kontsideratu behar dira.

Hasteko, Teri Ibarrolak grabatutako ipuinak aipatuko ditut, harek Zesareo aitarengandik jasoak. Sail honetan *Baltza bera*, *Peruren arkondarak*, *Begia bota batabateri*, *Lamiñearen orrazia*, *Peru Londresen*, *Peru hil da*, *Antzorrileta*,

Miren Garate ama nuenak, kontetan zizkidan ipuin pare bat: *Alper Handiren ipuina* eta *Peru eta Maridxen umearena*.

Maixeneko Itziar Zubizarreta be auzoko bizimoduan ipuinak zein kantak zein denetariakoak kontatzen errimea izan dana badakigu, baina ez dugu lortu haren kontakizunik.

Duda barik gehiago ere izango ziren, guk ezagutu ez arren horien testigantzarik.

3.3.4.2. Kantak eta kontuak

Kantak, hasteko denek zekizkiten elizako kantak; ume kantak ere gitxi-gehi, bai. Bestelako kantak, maitasunak, dramak, txantxak, probetako bertsoak, etab. gehienetan kanta-paperetatik eta bertso-paperetatik ikasitakoak izaten ziren. Letrak buruz ikasi eta kantetan zituzten; gaur zine, bideo eta telebistetan ikusten ditugun pelikulak lehen kanta moduan kantatzen eta kontatzen ziren. (Itsu mutilarenak, Markesaren alabarenak, Juana Bixenta Olaberenak, etab.)

Gaur egun ez dugu ikasi ohi kanta oso bat ez kanta batzuen ahapaldi bat edo bi. Honetan ere, bizimoduaren aldaketarekin batera, irratia, telebista, diskoak, CDak ugaritu ahala, geuk kanteteari erdi itzi egin diogu edo beste kanta batzuk, guztiz desberdinak, kantatzen ditugu; formetan eta edukietan berdinu egin gara munduko ganerako biztanleekin; agian horrelaxe izan behar du, edozein kasutan, lehengoarekiko diferentia da eta lehengoa esatean orain dela 50 urtetik atzerakoa dinot.

Baditugu kanta batzuk MariJun Uriguenek kantatu eta hari grabatutakoak, ez denak kalitate onean, baina, batzuk entzuteko moduan. Memoria onekoa izan behar zuen zeren 17 kanta daude grabatuta, kanta paperetatik ikasitakoak gehienak eta luze samarrak.

Honegaz batera Franziska Landeta be memoria onekoa zen eta agure lepo makurrarenak³, eta danetan izarra zen Markesaren alabarenak eta kantatzen zituen; grabatu be egin genituen, baina, zoritxarrez, kasetetako zintetan grabatutakoa, denboraren eraginez, ezabatu egin da.

3.3.4.3. Errezitatu bi

Sarritan ez zen beharrezko galdezka ibiltea, edozein berbak, edozein egoerak edo gertakizunek burura zekarkiena bat-batean botatzen zuten, zetorkien moduan. Honi lotuta eta amaitzeko, hona hemen neuk bat-bateko egoera informaletan jasotako adibide batzuk.

Halan, behin, ortuan san jua sua bizten nebilela, bidean igaro zen Manula Maruri eta badinost: Sanjun sua bizten? –Bai, hatantxe dihardut ba. - Eta zer esaten dozu ba zeuk? -Ez dot ba ezer esaten –Ba, hauxe esaten gendun guk:

Donie donie, bezpera gabien

abadiak asarratu zirien

ez eben besterik egiten,

alkarri muzturrek auzitzen.

Muskerrak eta sorginek ondo-ondo erre,

artuek eta gariek, ondo-ondo gorde.

Beste baten, Maria Mendiolea Otatza Handiakoak, biok batera dendan ginela, ardao baltza eskatu zion dendariari eta hauxe errezitatu:

Baltza nazela famatu deuste

gitxi deust niri ardure

ardaua be baltza da baina

askok edaten darue.

3.3.4.4. Esakerak

Honeek esakerok ere, bat-bateko kontestuetan jasotakoak dira, 1980 inguruan; lehenengo biak dendan erosteko zain:

Aidurko zarie ta konponduko zarie. Marijun Uriguenek

Bakotxa beren eruk eruten ei dau. Bittori Aranburuk

Eta amaitzeko, etxean sarri entzundako esaera hau:

Hasiak egin dirudi eta eginak urregorri. Miren Garatek

4. Ondorioak

Lehenengo ondorioa emakumeen bizimoduari buruzkoa da. Emakumeak ez dira izan elementu pasiboak, zalantza barik, herriko bizitzan parte aktiboa hartu dutela esan genezake. Gizonezkoena zen munduan emakumezkoak protagonista izan dira, bat ere protagonismo barik. Horixe da, ostera, paradoxa, bizi izateko oinarriko zeregin gehienak egin, gehi esparru publikoko hainbat eta hainbat jardueraren promotore izan eta horietan lan egin eta inork ez ikustea.

Bigarren ondorioa iragana eta geroaren arteko etenari buruzkoa da. Inguru erruralean gune industrializatueta baino luzarago iraun du bizimodu tradizionalak, orduan, normala deritzogu Aulestin bizimodu tradizional horren oihartzunak XX. mendearen erditik aurrera ere azaltzeari. Modu figuratuan esateko, beheko suak desagertu zirenean hasi zen aldaketa eta gaur, jada, beste aro baten bizi gara, aldaketaren abiaduragatik berehala zaharra izango den aroan. Abiadura horren ondorioz, bizimoduaren aspektu gehienetan etena gertatu dela ikusi daiteke, alegia, orain arte transmititu den informazioa eta aurrerantzean behar dena ez datozela bat.

Hirugarren ondorioa emakumeok transmititu dizkiguten balioei buruzkoa da. Eredu pribatu zein publikoko jardunarekin, ipuinak, kantak, elikadura, janzkera, zaintzak eta abarrekin, iraganaren informazioa gureganaino ekarri digute eta horiekin batera, zeharretara, bizitzako balioak erakutsi dizkigute.

5. Azken gogoeta

Azken gogoeta gisa dinot ahozko tradizioaren bidez jaso ditugun balioetariko batzuei gizakion elkarbizitzan

³ Jeurt! Bertoko errebisti, 1995-06, 10-11 or.

oinarrizko deritzedala, halan da bada, norbanakoaren balioetarikoa eta gizartearenetarikoa diren identitatea, duintasuna, ekintzaitetasuna eta langiletasuna, esate baterako, gero ere behar izango direlakoan nago.

6. Bibliografia

- Aranguena, J. eta Onaindia, J.M. (2007). *Kiñu baten, Aulesti 130 urte*. Aulestiko Udala
- Retolaza, I. in: Bilbao, B., Ezkurdia, G., Pérez, K. eta Chueca, J. (2012). *Emakumeak, Hitza eta Bizitza*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
- Zubikarai, A. eta Fernández Eiguren, J. (1990). *Aulesti*. Augustin Zubikarai editore
- Sañudo, M. (2005). La velocidad del cambio tecnológico. *El siglo de Torreón*. <https://www.elsiglodetorreon.com.mx/noticia/155084.genesis-empresarial-la-velocidad-del-cambio-tecnologico.html>
- Apalategi, U. (2018). Euskaldunak (1934). Nikolas Ormaetxea. In Auñamendi Entziklopedia [on line]. [Kontsulta data: 2018ko martxoaren 18a]. Eskuragarri hemen: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euskaldunak-1934-nikolas-ormaetxea/ar-50703/>
- Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa. Bizkaiko Administrazioa. Estatistikak. Populazio estatistikak. *Polizi Errola. Murelaga. 1826* <http://apps.bizkaia.net/ARIT/servlet/webAgentARIT>
- Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa. Bizkaiko Administrazioa. *Archivo Municipal de Aulesti*. <http://apps.bizkaia.net/ARIT/servlet/webAgentARIT> Signatura 0020/017
- Bizkaiko Foru Artxibo Historikoa. Bizkaiko Administrazioa. *Archivo Municipal de Aulesti*. <http://apps.bizkaia.net/ARIT/servlet/webAgentARIT> Signatura 0034/023
- Ganurkulu. (1932a). Errijetatik. *Euzkadi*. 6. o. <http://hemeroketa.eus/cgi-bin/orria.pl?arg=euzkadi&zein=19320913>
- Ganurkulu. (1932b). Errijetatik. *Euzkadi*. <http://hemeroketa.eus/cgi-bin/orria.pl?arg=euzkadi&zein=19320914>
- Ganurkulu. (1932c). Errijetatik. *Euzkadi*. <http://hemeroketa.eus/cgi-bin/orria.pl?arg=euzkadi&zein=19320922>
- Aires de Aliste (2015): Linua iruten . Proceso de elaboración del lino. Poblatura de Aliste. <https://www.youtube.com/watch?v=96rNggp6JGJg>
- Ministerio de Cultura y Deporte: *UNESCO. Patrimonio Cultural Inmaterial de la Humanidad* <https://www.mecd.gob.es/cultura/areas/patrimonio/mc/patrimonio-inmaterial/unesco-patrimonio-inmaterial.html>Unesco.org
- De Gonzalo, I. eta Urretabizkaia, L.(2012). *Las mujeres baserritarras: análisis y perspectivas de futuro desde la soberanía alimentaria. Incidencia y políticas públicas en el marco de la actividad agraria y el desarrollo rural*. Baserripress S.L. SS-1737-2012 Publicación subvencionada por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. Licencia by-nc-nd 3.0.